

**I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA**

Organismo Autonomoak

**GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA**

**Azaroaren 29ko Ebazpena. Honen bidez, oposizio fasearen lehen probako deia iragartzen da Gazteriaren Foru Erakundearen 2018rako enplegu publikoaren eskaintzaren deialdiko lehen probako lehen ariketarako deia iragartzen da**

Gazteriaren Foru Erakundean enplegatu publiko gisa sartzeko hautaketa prozesuak arautzeko oinarri orokorrak onartzen dituen 2018ko uztailaren 24ko Administrazio Kontseiluaren ebazpenaren 6.2 oinarrian xedatutakoaren arabera, oposizio fasea eratuko duten ariketen artean, 7.2.1 oinarriaren arabera, lehenengoa egiteko deialdia ALHAOn argitaratuz egingo da.

Behin deialdiko epaimahaiaik erata, eta epaimahaiek probak egiteko egunak eta tokiak onetsi ondoren, oinarrietan ezarritakoa betez eta dagozkidan ahalmenez baliatuz,

**EBAZTEN DUT**

Lehenengoa. Oposizio Fasearen lehen probako deia iragartzea, 2018rako Gazteriaren Foru Erakundearen enplegu publikoaren eskaintzari dagokiola. Deia hurrengo lekutan, orduetan eta datetan izango da:

LANPOSTUA	LEKUA	EGUNA	ORDUA	GAIK*
Zerbitzu Orokoretako Teknikaria	Hezkuntza eta Kirol Fakultatea Gasteiz. Lasarteko Atea 71 (01007)	2018/12/20	17:30	1-90
Gazteria Teknikaria	Hezkuntza eta Kirol Fakultatea Gasteiz. Lasarteko Atea 71 (01007)	2018/12/19	17:30	1-60
Zerbitzu Orokoretako Administraria	Europar Biltzar Jauregia Gasteiz Hiribidea, 85, 01009 Vitoria-Gasteiz	2018/12/16	10:00	1-40
Gazteriako Teknikari Laguntzailea	Europar Biltzar Jauregia Gasteiz Hiribidea, 85, 01009 Vitoria-Gasteiz	2018/12/16	12:30	1-20
Kirol Jardueretan Espezialista	Hezkuntza eta Kirol Fakultatea Gasteiz. Lasarteko Atea 71 (01007)	2018/12/19	17:30	1-40
Uretako Kirol Jardueretan Espezialista	Hezkuntza eta Kirol Fakultatea Gasteiz. Lasarteko Atea 71 (01007)	2018/12/20	17:30	1-40

\*Proban sartutako gaiak (Gai Komunak eta Espezifikoak).

Bigarrena. Probetan parte hartu ahal izateko, izangaiek onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzen duen ebazpenean onartu gisa agertu behar dute.

Gasteiz, 2018ko azaroaren 29a

*Euskara, Kultura eta Kirol Diputatua*  
**IGONE MARTINEZ DE LUNA UNANUE**